

Haritz Garmendia Iturria

Herri zapaldu bateko pentsalaria

Herri zapalduaren galderak eta inperioarenak ez dira beti berdinak. Urrerik ez duenak jakin nahi du historian zehar nork ostu dion aberastasuna. Egurra besterik jaso ez duen bakezaleak zergatik biolento gisa kategorizatzen duten galdetzen du. Historiarik ez duen herriak, non galdu den haren historia. Nazio bati ulergaitza zaio harena ez den hizkuntza batean bizi beharra. Era berean, pentsamendu propioaren legitimazioa funtsezko auzia da inoiz unibertsitaterik eduki ez duenarentzat. Subjektu izan nahi duenak jakin nahi du zergatik eta nola bihurtu duten objektu.

Herri zapaldu batek antzeko galderak izateari uzten dionean, argi go-
rriak piztu diren seinale izaten da!

Auzi horiek marko egoki batean kokatu eta euskal begiradatik lantzeko gaitasun handia izan du Joxe Azurmendik. Gogoeta sustatzeko, irakurleari galderak luzatzea izan da bere testuetan erabili duen baliabideetako bat. Horrela, galderen bidez irekidura bat iradokitzen du Azurmendik, errealitatea interpretatzeko indarrean dauden marko kolonial eta murriztaileen aurrean. Irakurlea interpelatzeko joera hori konstante bat da, haren lehen idatzietatik hasi, eta azken idatzietaraino.

Baiña zergatik eta zertako euskaldun? (1967)

Zergatik egin zaio euskaldunari azkeneko ehun urteotan sozialismoa arrotz? (1971)

Eta zein ausartuko litzateke progresoak askatasuna, nortasunaren osapena, zoriona, dakarrenik baitesten? (1975)

No son más que unos españoles sin romanizar: zer esan nahi du horrek zehatz? (1992)

Zer zarete zuek lehenago: abertzaleak ala demokratik? (1997)

Bortxak eraiki ez duen zein 'Zuzenbideko Estatu' dago munduan? (1998)

Gogoratzen naiz behin nola irakasle madrildar batek, mestizajearen apologia sutsua egiten ari zela [...]. Zer da mestizajea eta zeri deritzogu unibertetsala? (2003)

Zein 'Espainiak' aurkitu zuen Amerika? (2006)

Bakea eta batasuna da historiaren jomuga: baina zein bake eta batasun? (2012)

Ikastolak pribatuak dira, a bai? Eta eskola publikoa Estatuarena delako publikoagoa da? (2015)

Gizakia aberea da, baina zer abere mota da abereen artean? (2016)

Nazioak 'betidanikoak' diren ala Aro Garaikidekoak diren, inportantea da? Ez dakit. Auzi akademiko soila nolanahi ere ez da, tesi politiko bat ostentzen duena baizik. (2017)

Lehen begiratuan, badirudi galdera horietako bakoitza independentea dela, eta, beraz, ez duela loturarik besteekin. Hala ere, autorearen filosofiari osotasunean erreparatzen badiogu, ohartzen gara koherentzia handia duela haren obrak. Horregatik, Azurmendi ez da mugatzen auzi bakoitza azaletik erantzutera. Izatez, galdera horien bidez, gizagintza konkretu bat ari da harilkatzen modernitatearen mugak bistaratzen dituen bitartean. Hori guztia euskaratik eta euskaraz.

Ez da badaezpadako ondarea utzi duena!

2025eko uztaillean agur esan digu Azurmendik. Gure artetik joan bada ere, hark proposatutako ikerlerroek gaurkotasun handia izaten jarraitzen dute. Egin diezaiokegun aitortzarik handiena da berak eta bere belaunaldiak hasitako bideari jarraipena ematea. Ez, ordea, edonola; ahal dela, eurek egin zuten bezala: konpromiso etikoaz, apaltasunez eta talde-lanean.

Mila esker, Joxe!